



Ocaña I gartzelako euskal preso politikoen senide eta lagunek jakinarazi digutenez, bertako ziegetan preso dituzten euskal herritarrek, hil honen 1etik gose greban daude. Preso politikoei “Orokorrean, daukoguzan bizibaldintza minimoak ez diralako hasi dogu burruka hau” diote eskuz etxekoei, lagunei eta herritarrei eginiko orritxo batean.

Ohiko bideak agortu ondoren eta eskabideak ez direla aintzat hartzen ikusita, halako neurriak hartu beharrean aurkitu dira, mugarik gabeko greba bati hasiera emanaz. **Pol Asensio** dago borrokaldi honetan murgilduta dauden presoaren artean .

Honako hauek izan dira Ocañako presoek borrokatu nahi izan dituzten gutxieneko bizi baldintzak:

1.- Presoen arteko eguneroko komunikazioa

Ocaña leian egunean bi ordura mugatuta dago

Edozein unetan eta ezelako abisurik barik kartzelan modulotik aldatuak izan daitezke kartzeletan.

Beste kartzela batzuetako lagunekiko komunikazioa ezinezkoa da.

2.- Kanpokoekin (Etxekoekin, Lagunekin, Irakasleekin, ...) komunikazioa

Etxekoekin telefonozko deiak mugatuak dira bai denboran eta bai aldikotasunean.

Lagunekin bisitak mugatuak dira eta 6 hilabetero aldatu egin behar dira.

Bisitetak eta aurrez aurreko komunikazioak grabatu egiten dira.

3.- Lagunekin bisitak eta aurrez aurrekoak

Ocaña leian, aurrez aurreko intimoak astegunez egin behar dira, lana utziz eta honek dakartzen ondorio guztiak norberaganatu behar dituelarik bikoteak.

4.- Ikasketak

Ikastetxeekin tramitazioa guztia etxekoak edo lagunek egin behar dute

Ikasketak egiten daudenak, ezin dute komunikatu telefonoz irakasleekin edo bestela dei horiek beste dei arruntei kentzen zaizkie bai alditasunean eta baita denboran ere.

Ikasteko eskubidearen kasuan, kartzela bateko matrikula desbaliotuta gelditzen da kartzela batetik bestera aldatzen badute presoak.

5.- Gutunak, aldizkariak, argazkiak

-Gutunak kontrolatuak daude eta irakurriak –euskaraz badaude itzultzeko bidaltzen dituzte-dira. Denbora eta denbora pasatzen da gutun bat edo postal bat helmugara heltzen denean.

-Aldizkariak, euskarazkoak badira bahe estua pasatu behar dute.

Argazki edo firma edo gai "desegokia“ dela iruditzen bazaio funtzionariari, aldizkaria ez da sartzen.

-Argazkiak ere funtzionarioaren aldarrearen filtroa pasatu behar dute.

-CDak debekatuak daude.

-Jantziaren batean errebindikazio usaina sumatuz gero bueltatu egiten da delako jantzia edo agian "galdu".

6.- IKT

Ordenagailuetara ez daukate sarbiderik.

Beraz informatika ikasketak de facto galazota daude eta teknologia hauen bitartez ezer ere ezin da egin.

Gutun bidalketa masiboa presoek eskubideen alde

Gartzela barnean gose greba hau burutzen den bitartean, presoek senideek Ocaña leko zuzendariari eta Kartzeletako Zuzendaritzara gutun bidaltze kanpaina bat antolatu dute Euskal Preso Politikoen komunikazio eskubidea errespetatua izan dadila eskatuz. Hemendik [deskargatu](#)

ditzakezue gutun ereduak jarraian daukazuen helbideetara igorri ahal izateko.

Centro Penitenciario OCAÑA I

(Sr. Director)

Mártires, 4

45300

OCAÑA (Toledo)

Dirección General de Instituciones Penitenciarias

C/Alcalá, 38

28014 - Madrid (Secretaría General de I.I.P.P.)

MADRID